



**TXOSTENA: RASVE-K BAIEZTATUTAKO**

**FOKUAK**


**2011ko 3. LAUHILEKOA**

2011. urteko hirugarren lauhilekoan, Europako Albaitaritzako Osasun Alerta Sareak (RASVE) **1.069 fokuen** berri eman du **abereen gaixotasunei buruz**.

Taula honetan 2011ko iraila eta Abendua bitartean, abereen gaixotasunak direla eta, Europan jakinarazitako fokuen kopurua ikus daiteke:

Gaixotasuna	Fokuen kopurua
Sukar Aftosoa	550
Zaldien Anemia Infekziosoa	209
Hausnarkari Txikien Izurritea	114
Zaldien Entzefalomielitisa	71
Afrikako Txerri Izurria	23
Gerri-azkura (Scrapie)	19
Patogenotasun Eskaseko Hegazti-gripea oilategi-hegaztien artean	18
Mingain Urdin gaixotasuna	17
Koi herpesbirusa	13
Ardien eta Ahuntzen Nafarrerria	9
Behien Entzefalopatia Espongiformea (EEB)	6
Newcastle gaixotasuna	4
Patogenotasun Eskaseko Hegazti-gripea baso-hegaztien artean	3
Txerrien Xixkuko Gaitza	3
Birus Septizemia Hemorragikoa	3
Afrikako Txerri Izurria basurdeen artean	3
Nekrosi Hematopoietiko Infekziosoa	2
Patogenotasun Eskaseko Hegazti-gripea gatibu-hegaztien artean	1
Durina	1
Guztira	1069

Diagrama honetan gaixotasunen arabera jakinarazitako fokuen kopurua ageri da: aberea:




Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, aurreko bi lauhilekoetan bezala, oso altua izan da Sukar Aftosoa eta Zaldien Anemia Infekziosoa eragin dituzte foku gehien.

Eta 2011ko aurreko bi lauhilekoetan bezala, **Sukar Aftosoa** eragindako kasu guztiak Turkian antzeman dira; izan ere, han Sukar Aftosoa gaixotasun endemikoa da.


**Zaldien Anemia Infekziosoari** dagokionez, Errumanian jakinarazi dira foku gehienak, 186 kasu guztira.

Gaixotasun horrek honako banaketa hau izan du herrialdekako foku kopuruen arabera:



Azpimarratzekoa da, halaber, **Hausnarkari Txikien Izurriteen** foku-kopuruak gora egin duela nabarmen (114 foku guztira) aurreko lauhilekoekin erkatuz gero Foku guztiak Turkian atzeman dira.

Foku gehien eragin dituen laugarren gaixotasuna **Zaldien Entzefalomielitisa** izan da (71 foku), eta gehienak Italian jakinarazi dira. Aipatzekoa da Espainian 2011. urtean jakinarazi dela lehenengo aldiz gaixotasun hori:




Iturria: Europako Batzordea (RASVE)

Gainerako gaixotasunei dagokienez, askoz ere jakinarazpen gutxiago egin dira 2011. urteko hirugarren lauhileko honetan. Baina horrek ez du esan nahi garrantzitsuak izan ez direnik. Besteak beste, aipatzekoak dira Italian atzeman dituzten **Afrikako Txerri Izurriaren** fokuak. Guztira 23 foku atzeman dituzte, guztiak Italian, Sardinia irlan hain zuzen ere.


## ESPAINIA

Espanian, 2011. urteko hirugarren lauhilekoan, guztira abereen 32 gaixotasun-foku jakinarazi dira RASVEren bidez. Honela banatu dira gaixotasunok:



3


Autonomia erkidegoak kontuan hartuta, honela banatu dira gaixotasunak:



Iturria: Europako Batzordea (RASVE)

**Mingain Urdin gaixotasunari** dagokionez, Espainian 10 foku jakinarazi dira: 3 lehenengo lauhilekoan eta gainerako 7ak hirugarren lauhilekoan, urritik aurrera.

1011. urteko azken lauhilekoan jakinarazitako fokuak honela banatu dira:



**Zaldien Entzefalomyelitisak**, zehazki, "Niloko Mendebaldeko Sukarra"ren serotipoak eragin dituen lau fokuak **Andaluzian** atzeman dira. Foku horiek eragin dute 2011n Espainian gaixotasunaren inguruan egindako lehenengo jakinarazpena.

**Behien Entzefalopatia Espongiforme gaixotasunaren** foku bakarra atzeman da **Galiziako** Autonomia Erkidegoan.